

## Txama Integrazio Topagunea

**TXAMA**  
Integrazio topagunea



### **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektua aurrera eramateko, baliabide fisiko, intelektual, giza baliabide eta finantza baliabide desberdinak beharko ditugu. Hasteko, baliabide fisikoei erreparatuta, lokala (topagune gisa erabiliko litzatekeena), baliabide teknologikoak, altzairuak (aulkiak, mahaiak, apalak...) eta jolasetarako materiala beharko genituzke.

Baliabide intelektual eta giza baliabideei dagokienez, bosteko talde iraunkorrak osatuko dugu elkarteak, baina, gutaz gain bolondres asko behar izango ditugu, hainbat ekintza aurrera eramanez ahal izateko; horiek, aurretik aipatu bezala, kanalen bidez lortuko genituzke. Geuk eta bolondresak jakina, gaitasun jakin batzuk eduki behar ditugu, topagunea aurrera eramateko momentuan. Hala nola, jendea entzuteko eta ulertzeko gaitasuna, laguntzeko prestutasuna, jokoak eta ekintzak egiteko sormena, sare sozialak eta webgunea egoki kudeatzeko gaitasuna eta topagunera datozen pertsonen egoera hobetzeko erantzukizuna.

Bestalde, hezitzaileak ere beharrezkoak izango dira. Laburbilduz, gizarte-langintzan, irakaskuntzan eta enpresagintzan adituak direnak.

Azkenik, finantza baliabideei dagokienez, udalak eskainiriko laguntzekin egingo genuke aurrera, gure merchandisingaren salmentek eta borondateak horri gehitzen zaizkien bitartean. Gure proiektuaren kostuak, aurrerago zehaztasunez azalduz zerrendatu ditugu.